

**ZU, ZEU**  
Lander Garbizu  
*Oiartzun, 16 urte*

Zerua dakusat zure begietan,  
itsasoko amildegi sakonetik  
–behialako goiz ederren antzera–  
oskorri ugari argitu dituzten niniak,  
zeuk begiratzean...

Eta erruki diet izarrei.  
Milioika urtez guganako irritsaz,  
beraien keinuei itsu bagatzaizkie ere,  
eta gor beraien oihu zaharraren  
arnasaldiei.  
Milioika urtez itsasoari begira  
uhinek irents dezaten azkenik  
hainbeste alferrikako ametsen  
dirdir, izan-malkoz  
bustia.

Maitea, erregu dagizut,  
zuk, bederen, utz iezadazu  
zure zeru horretan  
jartzen nire izarrak;  
utz iezadazu nire kantuaz alaitzen  
zure gauak,  
itsasoaren zukuaz baitakite nire doinuek  
eta labarretako kaioen hegada  
malenkoniatsuaz.

Amets egin zintudan lehen arrastirian  
maitasun berri baten adierazle  
amets egin zintudan,  
eta esan ez nizun arren  
galtzaile gehienak bezala  
etxerik gabe nenbilela,  
ez zenuen nigandik apartatu  
zure hurbiltasunaren lurrina  
–mirra, intsentsu eta gentsania–  
nire begiek zure begiekin  
topo egiten zuten orduan.

Orain ordea, arratsa dator berriro,  
baina lehen arrastiri hura  
ez bezalako.

Lot zakizkit! Agudo!  
Zeruko izar alderraien itxura hartzen hasia naiz  
eta inoiz baino gehiago behar ditut  
zure eskuak,  
zure laztanak,  
inoiz baino gehiago iluntasun beldurgarria  
zeharkatzen lagunduko didaten  
zure begien itsasoko  
argi biak.